

# BIBLIOGRAFIARI BURUZKO JESUS OLAIZOLA BEKA, 2010. urtea DIPLOMATU ETA LIZENTZIATUENTZAKO BEKA DEIALDIA

- **DEITZAILEA:** Sancho el Sabio Fundazioa
- **INTERESDUNAK:** \*Edozein diziplinako diplomatu edo lizentziatuak. Atzerrian eskuratutako tituluak baliozkotuta edo onartuta egon beharko dira.  
\*Beka norbanakoek nahiz ikerketa-taldeek jaso ahal izango dute.
- **XEDEA:** Euskal bibliografiari buruzko ikerketa, JESUS OLAIZOLA MUGIKA izena izango duena, Sancho el Sabio Fundazioaren lehen zuzendariaren oroimenez.  
Gaia librea izango da, euskal kulturaren eremuaren barruan (zientzia, teknologia, zuzenbidea, artea, hizkuntza, historia, eta abar.), eta Sancho el Sabio Fundazioko euskal bibliografiari buruzko fondoetan dagoen informazioa osatu beharko du edozein euskarri edota diziplinatan.
- **BALORAZIOA:** Beka hori lortzeko haxe baloratuko da:
  - a) Espediente akademikoa
  - b) Euskal kulturari buruzko gaietan aritu izana
  - c) Beste meritu batzuk hala nola, bekak, sariak, argitalpenak, etab.
  - d) Sancho el Sabio Fundazioaren bibliografi fondoak osatzeko proiektuak duen interesa.
- **ESKARIAK AURKEZTEKO EPEA:** 2010ko urtarrilaren 29 arte. Bekaren iraupena 10 hilabetekoa izango da.
- **ORDAINSARIA:** guztira 6010,12 euro. Ordainketa hiru epetan egingo da. Bekadunak istripu, minusbaliotasun edo heriotza arriskuak estaltzen dituen aseguru, bere kontura, formalizatu beharko du. Aseguru horren poliza Sancho el Sabio Fundazioari aurkeztu beharko dio.  
Bekaren iraupena eta beste edozein beka edo soldata jasotzea bateraezinak dira, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen badu.  
Lanen jarraitutasun eta aprobetxamendu normala eragozten dituzten etendurak saihesteko, Bekari uko egiteak lan egindako denborari dagozkion eskubide ekonomikoak galtzea ekarriko du, lanaren 2/3 osatuta daudenean eta epe horri dagozkion emaitzak entregatuta daudenean salbu.

➤ **ESKARIAK AURKEZTEKO:**

Eskariarekin batera haxe aurkeztu beharko da:

- Beka eskatzeko gutuna.
- Eskatutako tituluak, baita eskatzaileak egokitzen jotzen dituen bestelako merituen egiaztagiriak ere.
- Aztergaia aukeratzeko dituen arrazoiak adieraztea.
- Curriculum Vitae.
- Azterlanaren helburu kuantitatiboak eta kualitatiboak.
- Plangintza, eta ikerketa egiteko erabiliko den metodoa.
- Eskatzaileak bere ikerketa-proiektua azaldu eta ezagutarazteko bidezkoztat jotzen dituen beste zenbait alderdi.

Agiriak POSTAZ bidali edo NORBERAK aurkeztuko ditu Sancho el Sabio Fundazioaren egoitzan, Betoñoko atea 23.zk., 01013 VITORIA-GASTEIZ.

➤ **MERITUAK BALORATZEKO MODUA:** Kide huez osatutako epaimahaiak egingo du balorazioa:

- Aurrezki Kutxako Kultur eta Gizarte Ekintzen zuzendaria edo horrek eskuordetzen duen pertsona.
  - Sancho el Sabio Fundazioko zuzendari teknikoa.
  - Unibertsitateko bi irakasle.
  - Agiritegi eta Liburutegietako Teknikari bat
- Hautatzen den lanaren emaitzen **aurkezpena** ACCESS datu-base batean egingo da.
- **HAUTAKETA:** Epaimahaiak zerrenda bat egingo du eta bertan beka esleitzeko hautagaia eta bi ordezeko agertuko dira. Horiek ezarritako hurrenkeraren arabera lehentasuna izango dute izan daitezkeen uko egiteak edo beste edozein gertakari betetzerakoan.
- Azken ikerketaren jabetza Sancho el Sabio Fundazioarena izango da. Fundazio horrek ikerketaren zati bat edo ikerketa osoa argitaratu eta zabaltzeko eskubidea du, beti ere lanen egiletasuna errespetatuz.